

14. ORDENANTZA FISKALA, ANIMALIAK JASO ETA BABESTEKO UDAL ZERBITZUA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak animaliak jaso eta babesteko zerbitzua emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

Ondorengo hau da zergagaia: udal administrazioak animaliak jaso eta babesteko zerbitzua ematea edo gauzatzea, horretarako norbaitek egindako eskariari erantzunez, edo norbanakoen egite edo ez egiteak zeharka eraginda.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasa honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34. eta 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, aipatutako zerbitzuak eskatuz gero, edota zerbitzuen onuradun edo zerbitzuak ukitutakoak izanez gero.

5. ARTIKULUA

Ordenantza honek araututako tasak ordaindu beharra izango dute animaliak jaso eta babesteko zerbitzuen edo jardueren onuradunek.

IV. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

Zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza da zerga-oinarria, tarifan azaldutakoaren arabera.

V. KUOTA

7. ARTIKULUA

Zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuz finkatuko da kuota.

VI. SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

Zerbitzua edo ekintza gauzatzen den unean sortuko da tasa

VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA

Udal administrazioak bidezko den likidazioa luzatuko du eta Udalaren kontuan sartuko da dagokion zenbatekoa.

VIII. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

IX. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK

A) 1.- Txakurrak eta katuak txakurtegia edo dena delako aterpean onartzea, animalia-aren jabeak edo haren edukiztaileak hala eskatuta.

- Txakurrak..... 104,10
€
- Katuak.....69,40
€

Animalia txakurtegia onartzean, txakurren zerbitzukoek txostena egingo dute eta irizten badiote animaliak ez dituela, dena delako arrazoiengatik (adina, izaera erasotzailea, patología eta abar), beste norbaiten eskura lagatzeko baldintza egokiak betetzen, animalia-ri heriotza eutanasikoa emateko baimena sinatu beharko du bere borondatez animalia txakurtegia eraman duen jabeak edo haren ordezkotza duen pertsonak. Halakoetan, B) idazpuruan adierazitako tarifa ordaindu beharko du jabeak.

2.- Animalia jasotzeko norbaiten etxeraino joan behar bada, goian adierazitako zenbatekoari honako hau gehitu behar zaio..... 9,20 €

3.- Klean utzitako edo galdutako animaliak (txakurrak edo katuak) 52,10 €

Jasotako animaliak ez badauka dagokion mikrotxipa jarrita, jarri egingo zaio jabeari itzuli aurretik eta bidezko den albaitaritza tasa ordainduko dio interesdunak txakurtegiari.

B) 1.- Txakur edo katuen heriotza eutanasikoa eta errausketa104,10 €

2.- Animalia jasotzera etxera joan behar bada, goian adierazitako kopuruari honako hau gehitu behar zaio.....9,20 €

C) Txakur edo katuen gorpuak jaso, garraiatu eta erraustea.....81,00 €

Animalia jasotzera etxera joan behar bada, goian adierazitako kopuruari honako hau gehitu behar zaio.....9,20 €

D) 1.- Animaliak aterpean egiten duen egun bakoitzeko: 9,20 €

2.- Arriskutsuak izan daitezkeen zerrendan sartuta badago txakurra edo arriskutsuak izan daitezkeen txakurren arrazetakoa bada, txakurtegiaren egiten duen egun bakoitzeko.....
.....11,60 €

3.- Urtebeteren barruan animalia bera behin baino gehiagotan jaso beharra izanez gero, aterpean egiten duen egun bakoitzeko 3,45 € gehiago ordaindu beharko du jabeak.

E) Jabego pribatuetan katuak harrapatzeko harrapagailuak jartzea:

Harrapagailuak jarri, ikuskatu eta harrapatutakoak animalien udal aterpera eramatea. Aste bakoitzeko 34,10 €

F) Haginka egitearen ondorioz koarentenan egon behar duen txakurrak txakurtegiaren egiten duen egonaldia 132,30 €

G) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren izapideak.....18,75 €

H) TARIFA BEREZIAK, ERRENTA EMATEN DUTEN ETXEKO ANIMALIEN KASUAN

1. Jasotze zerbitzuan aritutako pertsona bakoitzeko eta orduko16,70 €

2. Animaliak gordetzeko zentrorainoko garraioa0,27 €/km

3. Zerbitzua gauzatzeko erabilitako materiala (azkonak, xiringak, eta abar)83,40 €

4. Ganaduaren mantenu kostua:

4.1. Azienda larria Lehenengo abelburua33,35 €/eguneko
Bigarren eta ondorengo abelburuak.....8,90 €/eguneko

4.2. Azienda xehea Lehenengo abelburua.....20,00 €/eguneko
Bigarren eta ondorengo abelburuak.....5,60 €/eguneko

5. Instalazioen mantentzeari egotzia.....27,80 € zerbitzu bakoitzeko



6. Hiltegiko gastuak Indarrean dagoen tarifa ofizialaren arabera
7. Tratamendu sanitarioaren gastuak Indarrean dagoen tarifa ofizialaren arabera